

**ANOETAKO BARATZA PUBLIKOEN EMAKIDA ETA ERABILERA**  
**ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA**

**I. TITULUA**

**XEDAPEN OROKORRAK**

**1. artikulua. Ordenantzaren xedea.**

Ordenantza honen helburua aisialdirako udal-baratzeak osatzen dituzten lursailen erabilera eta aprobetxamendua arautzera xedaturiko baldintzak arautzea da.

Era berean, Ordenantza honek zehapen-araudia arautzea du helburu, eta horretarako, arau-hausteak eta baratzeen pertsona lagapen-hartzaileei ezarri dakizkiekeen zigorrak ezarriko dira, horiek izango baitira arau honetan xedatutakoaren aurkako jarrearen erantzuleak.

**2. artikulua. Aplikazio-eremua.**

1. Ordenantzaren xede den aplikazio-eremuak aisialdirako baratzeak kokatuko diren Udalaren lursail guztiak hartzen ditu barne.
2. Eremu subjektiboari dagokionez, araudi hau zerbitzuaren erabiltzaile izateko Ordenantza honetan aurreikusitako baldintza guztiak betetzen dituzten eta baratze publiko baten eskatzaile eta/edo esleipendun diren Anoetako udalerrian bizi diren pertsona guztiei izango zaie aplikagarria.

**3. artikulua. Definizioak.**

- a) Pertsona erabiltzailea: Baimenaren esleipenduna edo titularra: Zerbitzua eskuratzeko, eta beraz, lagatzen zaion baratze publikoa erabili eta aprobetxatzeko eskubidea bereganatzen duen pertsona fisikoa.
- b) Uzta: Baratzearen erabileratik eta aprobetxamendutik lortzen diren etekinak, hau da, lurra erein eta landatzearen ondorioz lortutako elementuak, hala nola, barazkiak, frutak eta lekariak.
- c) Elementu komunak: Baratzeak dauden eta erabiltzaile guztiek erabiliko dituzten udal-lursailari dagozkion elementuak, naturalak edo bertan jarriak, hala nola, pasabideak, hesiak, hoditeria, ur-tangak eta muga-euskarriak.

Era berean, elementu komun gisa hartzen dira erabiltzaileen eskura jartzen diren nekazaritzako lanabesak eta gainerako tresnak.

- d) Erantzukizuna: Erabiltzaile bakoitzaren erantzukizuna, modu indibidualizatuan eta esleitutako lur-zatiari dagokionez.
- e) Baratze publikoa: Erabiltzaile bakoitzari dagokion lur-eremua. Lur horren arabera ezartzen da pertsona erabiltzailearen erabilera- eta aprobetxamendu- eskubidea.
- f) Lursaila: Baratze publikoek eta horien elementu komunek osatzen duten Udalaren jabetzako lursaila.
- g) Bizikidetzaren unitatea: Udal-eroldaren arabera, etxebizitza berean bizi diren pertsonak.
- h) Interes-taldeak: Beren ezaugarri bereziak direla-eta, beste pertsona batzuekin alderatuta ahul gisa hartzen diren kolektiboak, hala nola, erretiratuak, langabeak, minusbaliatuak, edo interes bereziko kolektibo gisa hartzen direnak, irabazi-asmorik gabeko erakundeak eta ikastetxeak, adibidez.

#### **4. artikulua. Erabilerako xedapen orokorrak.**

1. Kontserbazioa eta mantentzea: Zerbitzua erabiltzen duen pertsonaren betebeharrak nagusia izango da laga zaion baratze publikoa modu egokian kontserbatzea eta mantentzea.
2. Instalazioak erabiltzean elkarrenganako errespetua izatea: baratze publikoen esleipendunek eta erabiltzaileek ez diete eragozpenik, kalterik edo minik eragingo gainerakoei.
3. Saltzeko debekua: Baratzeen esleipendunek eta zerbitzuaren erabiltzaileek guztiz debekatuta izango dute baratzeetatik lortutako produktuak saltzea.
4. Autohornikuntza: Baratzeetatik lortutako uzta ez da etekin ekonomikoak eskuratzeko erabili ahal izango.

5. Kutsaduraren prebentzioa: baratze publikoetan nekazaritza ekologikoko produktuak bakarrik erabili ahal izango dira, eta beraz, ezin izango dira lurarentzat kaltegarriak izan daitezkeen produktuak erabili: ongarriak, produktu fitosanitarioak. Era berean, ezin izango da akuiferoak kutsa ditzakeen produkturik erabili.

#### **5. artikulua. *Erregimen aplikagarria eta erregulazioa***

5.1 Baratze publikoen erabilera eta aprobetxamendua jabari publikoko ondasun baten erabilera pribatibotzat har daitezke. Beraz, eta indarrean den araudian aurreikusitakoaren arabera, horiek dagokion baimena eskuratu beharko dute, aprobetxamenduaren iraupena lau urtetik beherakoa baita.

5.2 Baratze publikoen kopurua mugatua denez, baimenak lizitazio bidez esleitu beharko dira eskaera egiten duten pertsona guztien artean.

Hala ere, Udalak baratze batzuk gorde ahal izango ditu Interes Taldeentzat.

Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legean nahiz Toki Erakundeen Ondasunei buruzko Erregelamenduan jasotzen diren arauak aplikatuko dira.

#### **6. artikulua. *Baratze-programaren funtzionamendurako jarraibideak.***

Udal-organo eskumendunak dagozkion jarraibideak eman ahal izango ditu baratze publikoei dagokien programaren jarduerarako, betiere erabiltzaileek derrigorrez bete beharko dituzten moduak, ordutegiak, laborantza-motak eta abar arautzeko helburuarekin. Nahitaez bete beharko dira, halaber, udal-organo eskumendunak edo udaleko arduradunak ahoz adierazitako agindu eta ohartarazpenak.

## II. TITULUA

### ESLEIPEN-PROZEDURA

#### **7. artikulua. *Erabiltzaile izateko baldintzak.***

a) Zerbitzua erabili ahal izango dute, eta beraz, baratze publikoen erabilera- eta aprobetxamendu-baimena bereganatu ahal izango dute Anoetako udalerrian erroldatuta dauden 18 urtetik gorako pertsonak.

b) Anoetako Udalarekiko zerga-betebeharrak eta bestelako betebeharrak ordainduta izatea.

c) Beste baratze publiko baten erabiltzaile den bizikidetzta-unitate bateko kide ez izatea.

## **8. artikulua. *Baimenak emateko prozedura.***

8.1 Zerbitzu publikoa eskuratzeko, eta beraz, baratze publikoak erabili eta aprobetxatzeko baimenak konkurrentzia-araubide bidez esleituko dira, horien kopurua mugatua dela kontuan izanik.

Hala ere, arau orokor hori ez da aplikagarria izango interes-taldeen kasuan, eta Udalak baratze jakin batzuk gorde ahal izango ditu pertsona horientzat.

8.2 Ohiko esleipen-prozedura ofizioz abiaraziko du Udalak, eskumena duen udal-organoak dagokion ebazpena argitaratu ostean. Ebazpen horretan, baratze publikoen erabilera eta aprobetxamendurako baimenak emateko deialdia jasoko da, baratze publiko guztiei nahiz kopuru jakin bati dagokionez. Deialdi hori udaletxeko iragarki-taulan argitaratuko da, baita Udalaren webgunean ere ([www.anoeta.net](http://www.anoeta.net)).

8.3 Zerbitzu honekiko interesa duten, eta beraz, baratze publiko baten esleipendun izan nahi duten pertsonak dagokion eskabidea aurkeztu beharko dute Udal Erregistroan, betiere eredu ofizialari jarraiki. Horrez gain, eskabidean zehaztutako dokumentuak eta aurreko artikuluan jasotzen diren baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duen zinpeko aitorpena aurkeztu beharko dute.

8.4 Udalak ofizioz egiaztatuko du eskatzailearen erroldatzea, baita Udalarekiko zerga-betebeharrak eta bestelako betebeharrak egunean dituela ere.

8.5 Deialdian hamabost eguneko epea ezarriko da, gutxienez, eskabideak aurkezteko. Horren ondoren, onartutako eta baztertutako pertsonen behin-behineko zerrenda onartu eta hura iragarki-taulan argitaratuko da.

8.6 Hala nahi dutenek erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte deialdi bakoitzean zehaztuko epean; epe hori hamar egunekoa izango da, gutxienez. Epe hori amaitu eta jasotako erreklamazioak ebatzi ostean, onartutako eta baztertutako pertsonen behin betiko zerrenda argitaratuko da. Esleitu beharreko baratzeak baino onartutako eskaera gehiago badaude, jendaurreko zozketa bat egingo da lursail zehatz bat esleitzeko. Zozketaren eguna behar bezala jakinaraziko da.

8.7 Zozketa publikoa egin ondoren (hala badagokio), pertsona esleipendunen zerrenda eta behin betiko itxarote-zerrenda argitaratuko dira udaletxeko iragarki-taulan eta Udalaren webgunean ([www.anoeta.net](http://www.anoeta.net)).

#### **9. artikulua. Zozketa-irizpideak.**

Zozketa-irizpideak dagokion lizitaziorako deialdian zehaztuko dira.

#### **10. artikulua. Eskumena.**

Udal-organo eskumenduna arduratuko da baratze publikoen esleipen-prozeduraz.

#### **11. artikulua. Baimenak esleitzea eta itxarote-zerrenda.**

11.1 Pertsona esleipendun bakoitzari emango zaion baimenak baratze publikoaren xedea, definizioa eta kokapena, erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak, eta baimenaren indarraldia jasoko ditu gutxienez.

11.2 Zozketan baratzerik gabe geratu diren pertsonak itxarote-zerrenda batean sartuko dira. Zerrenda hori bajak betetzeko erabiliko da; horrenbestez, zerrendan hurrena dagoen pertsonari deituko zaio, zozketa-ordenaren arabera, baimenaren indarraldian zehar.

11.3 Baratze jakin bat esleitu ostean, pertsona esleipendunak xede horrekin zehaztutako fidantza ordaindu eta onartutako prezio publikoaren autolikidazioa egin beharko du. Fidantza baimenaren indarraldia amaitu ostean itzuliko da, baratzea esleipena egin zen momentuan zegoen egoera berean itzultzen bada.

11.4 Bajak betetzeko itxarote-zerrenda eguneratuta eta erabiltzaile eta eskatzaileen eskura egongo da Udalaren webgunean.

### III. TITULUA

#### BAIMENAK

#### **12. artikulua. Emateko titulua.**

12.1 Baimenak zerbitzua erabiltzeko eskubidea, eta beraz, baratzearen erabilera- eta aprobetxamendu-eskubidea ematen du; eskubide hori pertsonala eta transferiezin da, eta baimenean ezarritako baldintzak betetzen diren bitartean bakarrik izango du balioa. Pertsona erabiltzaileak ezin izango ditu, inola ere, erabiltzaile izateak ematen dizkion erabilera-eskubideak laga, kargatu edo doan edo kostu bidez erabili. Eskubide horiek ezin izango dira hirugarrenen esku utzi.

12.2 Pertsona erabiltzaileak “lagapen prekario” bidez eskuratuko du baimena, eta Udalak edozein momentutan kendu ahal izango dio, interes publikoko arrazoi justifikatuak direla eta. Hori gertatuz gero, erabiltzaileak ez du inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango.

### **13. artikulua. *Baimenen iraupena.***

13.1 Baimenek urtebeteko iraupena izango dute, eta gehienez ere hiru urtera arte luzatu ahal izango dira, urtez urte. Nahi izanez gero, pertsona erabiltzaileek hurrengo deialdietan parte hartu ahal izango dute.

13.2 Urteko luzapenak automatikoki egingo dira, epea amaitu baino hilabete bat lehenago aldeek kontrakorik adierazten ez badute.

13.3 Udal-organo eskumendunak baimenak baliogabetu eta indarrik gabe utzi ahal izango ditu pertsona erabiltzaileak esleipen-baldintzak behin eta berriz betetzen ez baditu edo Ordenantza honek baimena baliogabetzeko aurreikusten duen beste egoeraren bat sortzen bada.

13.4 Baimenaren indarraldian, baratze publikoen pertsona esleipendunek beste deialdi batzuetan parte hartzeko eskubidea izango dute. Kasu horretan, eta beste baratze publiko bat esleituz gero, pertsona titularrak aurrekoari uko egin beharko dio nahitaez. Bizikidetzaren unitate bakoitza baratze publiko bakar baten titularra izango da.

13.4 Baimenaren indarraldia amaitzean, eta hura amaitu aurreko hilabetean, baratzeak laga ziren baldintza beretan itzuli beharko dira, hau da, kanpo-ekarpenen eraginez lurtean funtsezko aldaketarik egin gabe.

### **14. artikulua. *Baimenak eskualdatzeko ezintasuna eta iraugitzea.***

14.1 Zerbitzua erabiltzeko, eta beraz, baratze publikoen erabilera- eta aprobetxamendu- eskubidea ematen duten baimenak ezin izango dira beste inoren esku utzi.

14.2 Baimenak honako arrazoi hauen eraginez iraugi ahal izango dira:

a) Epea amaitzea.

- b) Bi aldeak ados jartzea.
- c) Ebazpen judiziala.
- d) Pertsona titularrak uko egitea edo atzera egitea.
- e) Heriotzagatik edo baratzean aritzea eragozten duen gaixotasunagatik. Kasu horietan, oinordekoek edo senitartekoek baratzean dauden produktuak jaso ahal izango dituzte.
- f) Baliogabetzeagatik, Ordenantza honetan aurreikusitako arrazoiren bat dela eta.

### **15. artikulua. *Baimenak kentzea.***

#### 15.1. Baimenak kentzeko arrazoiak izango dira:

- a) Erroldatzea galtzea.
- b) Ordenantza honetan baratzeak esleitzeko ezartzen den beste baldintzaren bat ez betetzea.
- c) Interes publikoko arrazoi justifikaturen bat. Interes publikoko arrazoi justifikatutzat hartuko da, besteak beste, baratze publikoen programarekin bateraezina den edo programa ordezkatzeko duen beste edozein udal-programa onartzea. Baita Udalak edo beste edozein herri-administraziok hiri-garapenerako edo azpiegitura-garapenerako beste plan bat onartzea ere, plan hori gauzatzeko baratze publikoak kokatuta dauden lurzoruan zuzkidura publikoa ezarri behar bada. Kasu horietan, Plan hori onartzeak gizarte-intereseko edo erabilera publikoko adierazpena eragingo du, indarririk gabe utziko ditu jabari publikoko lurrak erabiltzeko baimenak eta emandako baimenaren iraungipena eragin ahal izango du, kalte-ordainak jasotzeko inolako eskubiderik gabe.
- d) Baimena bertan behera uztea eragiten duen arau-hauste larri edo oso larriren bat.
- e) Onartutako prezio publikoa ez ordaintzea.

#### 15.2 Baimena kentzean, zerbitzuaren erabiltzaile-baldintza galduko da automatikoki.

## **16. artikulua. *Baimena kentzeko prozedura eta ondorioak.***

16.1 Baimena kentzeko prozedura ebazpen arrazoitu bidez abiaraziko da, eta bertan, gertakizunak eta zuzenbideko oinarriak azalduko dira. Ebazpena pertsona erabiltzaileari helaraziko zaio, eta hark 15 eguneko epea izango du alegazioak aurkezteko.

16.2 Baimena kentzeak, eta beraz, pertsona erabiltzaile izateari uzteak ez du, inola ere, kalte-ordainak jasotzeko eskubiderik emango, ezta ordaindutako prezio publikoa berreskuratzeko ere. Gainera, baimena galtzeak fidantzaren konfiskazioa eragingo du, eta hala badagokio, Udalari eragindako kalte-galeren ordainketa eskatu ahal izango da.

## IV. TITULUA ERABILERA- ETA APROBETXAMENDU-BALDINTZAK

## **17. artikulua. *Erabilera-baldintza orokorrak.***

17.1 Zerbitzuaren erabiltzaileek esleitu zaien baratze publikoa erabili eta aprobetxatu beharko dute, eta ezin izango diote haren erabilera beste inori laga.

17.2 Gainera, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Arau orokor gisa, Ordenantza honetan jasotako alderdi guztiak errespetatu beharko dituzte.

b) Laga diren instalazioak eman zaizkien baldintza beretan mantendu beharko dituzte. Baratzeak garbi mantendu behar dira, eta baimenaren epea amaitu ostean, dagozkion baldintzetan utzi behar dira, esleipendun izan daitezkeen pertsonak horiek erabil ditzaten.

c) Erabiltzeko uzten diren ondasunak modu egokian zaintzea. Gainerako erabiltzaileek edo hirugarren pertsonak baratzeetan edo instalazioetan eragindako edozein gorabeheraren berri emango diote Udalari.

d) Hasieran uzten den baratzearen hasierako egitura eta azalera mantentzea. Horrenbestez, erabiltzaileek ezin izango dute Udalak hasieran utzitako baratzearen mugaketa aldatu, ezta Udalaren baimenik gabe inolako obra edo itxiturarik eraiki ere.

e) Baratzeetan animalien presentzia galaraztea.

f) Baratze lan guztiak egin, eta bereziki, uzta jasotzea, hark usain txarra eragiten badu, lursaila zikintzen badu edo lursaila bera eta paisaia kaltetzen baditu.



g) Baratze publikoen barnean trakzio mekanikoko ibilgailurik ez erabiltzea, nekazaritzako makinaria izan ezik.

h) Baratzeetan ez da materialik edo tresnarik bildu edo gordeko, nekazaritza-lanetarako behar-beharrezkoak direnean salbu.

i) Ezin izango da beste pertsonentzat gogaikarria izan daitekeen musika-gailurik erabili.

j) Ez da baratzea lantzetik sortutako hondakinik edo belarrik erreko, ezta baratze publikoen eremuaren barnean inolako surik piztuko ere.

k) Ez da beste baratzeetara isurpenik egingo eta ez dira belar-sastrakak garbitzetik sortutako hondakinak norberaren edo besteen baratzeetan utziko.

l) Ezin izango da animaliei, hegaztiei edo pertsoneri baratze bidea ixteko zepo, tranpa, lakio, perdigo- edo balin-eskopeta, gomazko jaurtigailu edo bestelako tresna mekaniko edo naturalik erabili, hegaztiei sartzea eragozten dieten sareak izan ezik.

m) Elementu komunak –azpiegiturak nahiz tresnak– erabilera- eta garbiketa-baldintza egokietan errespetatu eta mantendu beharko dira.

n) Erabiltzaileek egunero zainduko dute baratzeen erabilera zuzena, eta instalazioen kontserbazioaz, konponketaz eta mantentzeaz arduratuko dira; horien erantzukizuna izango da horien erabilera desegokia egiten denean.

## **18. artikulua. *Erabilera-baldintza bereziak.***

18.1 Baratze publikoetan debekatuta dago:

- Pertsona erabiltzaileak paisaian eragina izan dezaketen edo instalazioetan kalteak eragin ditzaketen elementuak instalatzea, hala nola, bidoiak, biltegiak, xaflak, banatzaileak edo antzekoak.

- Lursailean edozein motatako eraikuntzak egitea, edo ingurunea alda dezaketen eguzkitako, esekigailu edo antzeko elementuak ezartzea.

- Baratzeak ixteko, mugatzeko, markatzeko edo seinaltzeko harriak, egurrak, adreiluak, blokeak edo bestelako elementuak erabiltzea. Udalak adierazitakoak soilik erabili ahal izango dira.

## **19. artikulua. *Pertsona esleipendunaren eskubideak.***

19.1 Zerbitzua erabiltzen duen pertsonaren eta baratze publiko baten esleipendunaren oinarritzko eskubideak izango dira: lurra lantzea, ereitea eta landatzea; lursaila zaintzea eta txukun mantentzea; ureztatzea, ongarritzea eta dagozkion tresnak erabiltzea; uzta biltzea; eta antzeko helburua duen beste edozein lan egitea.

19.2 Aurreko atalean aipatutako eskubideak zerbitzuaren pertsona erabiltzaileari bakarrik dagozkio, eta beste inork ezin izango du titularra ordezkatu eskubide horiei dagokienez.

19.3 Eskubide horiek guztiak indarrean egongo dira baimena indarrean den bitartean. Ordenantza honetan aurreikusitako edozein arrazoiengatik baimena amaitu egiten bada, eskubide horiek ere indarrrik gabe geratuko dira.

## **20. artikulua. Nekazaritza ekologikoa.**

20.1 Baratzeen aprobetxamenduak honako arau hauek bete beharko ditu:

a) Ezin izango da lurarentzat (azalean nahiz lurpean) kaltegarria izan daitekeen landare-espezierik landatu.

b) Laborantza-motak:

Inguruan ohikoak diren landare-espezieak bakarrik landatuko dira: letxuga, tomatea, tipula, porrua, kalabazina, babarrunak, landare eta lore apaingarriak, eta landare aromatikoak edo sendabelarrak.

Ezin izango dira landatu autoktonoak ez diren espezieak, espezie exotikoak edo inbaditzaileak, eta legeak debekatzen dituen espezie guztiak.

Ezin izango dira landatu sasoikoak ez diren eta gehienez ere zortzi hilabeteko epean bildu ezin diren espezieak, ezta fruta-arbolak ere.

c) Ordenantza honetan baimendutako substantziak bakarrik erabiliko dira landaketak, garbiketak edo beste edozer egiteko.

d) Ezin izango da erabili lurarentzat, azaleko urarentzat eta akuiferoentzat kaltegarria izan daitekeen ongarririk eta produktu fitosanitariorik, ezta atmosferara pertsonentzako, faunarentzako eta florarentzako partikula kaltegarriak aska ditzakeen produkturik ere. Era berean, ezin izango da erabili lurra kutsatu dezakeen garbiketa-produkturik edo horrelakorik.

e) Debekatuta dago, halaber, lurrari kalte larria eragin diezaioketen produktu kutsatzaileak botatzea.

f) Ahal izanez gero, produktu naturalak erabiliko dira izurriei eta gaixotasunei aurre egiteko, eta ongarri artifizialen ordez deskonposatutako materia organikoa erabiliko da lurra ongarrizteko (konposta, simaurra, hondakin organikoak eta abar).

20.3. Aurreko arauz gain, honako baldintza hauek bete beharko dira gutxienez:

### **1) Ongarriei dagokienez**

Debekatuta daude:

a) Sintesi bidez lortutako ongarri organiko guztiak eta produktu kutsatuekin egindako konpostak (lastoa, simaurra, pestizida eta herbizidekin tratatutako belarrak eta ongarri organikoak).

b) Prozedura kimikoen bitartez lortutako ongarri mineral guztiak (nitrogenatuak, fosfatuak, potasikoak, magnesiodunak, kare bizia eta abar).

Baimenduta daude:

a) Zizareen humusetik eratorritako ongarriak, konpost bihurtutako simaurrak (konpostajea hartzidura aerobikoko prozesu gisa hartuta), ongarri berdeak eta guztiz deskonposatutako uzta-hondakinak, baita kutsatu gabeko hondakinekin egindako konposta ere.

b) Jatorri naturaleko ongarri mineralak (xehatutako fosfato naturalak, silizeen hautsak, kareharri xehatuak, dolomitak eta abar).

### **2) Tratamendu fitosanitarioei dagokienez:**

Debekatuta daude:

Intsektizidak, fungizidak, akarizidak eta sintesi kimikotik eratorritako bestelako produktuak.

Baimenduta daude:

a) Substantzia naturalekin (mineralak nahiz landare- edo animalia-jatorrikoak) egindako fungizidak (Bordeles salda, Borgoñako salda eta abar).

b) Landareekin egindako prestakinak (mazerazioak, infusioak, egosketak, gernuak).

### **3) “Belar txarrei” dagokienez:**

Debekatuta dago sintesi bidez lortutako edozein herbizida kimiko erabiltzea.

Bestalde, metodo biologikoak erabili ahal izango dira belar kaltegarriak kontrolatzeko (lur-estalkia, eskuzko jorra edo erdi eskuzkoa, zapalda sakoneko laborantza).

### **4) Haziari eta landareei dagokienez:**

Debekatuta daude:

a) Laborantza kimikotik eratorritako edo sintesi bidez lortutako produktu kimikoekin tratatutako barazkiak, sustraiak, erraboiak, tuberkuluak eta haziak.

b) Edozein mota eta aldaerako genetikoki moldatutako organismoak (transgenikoak).

Baimenduta daude:

a) Nekazaritza biologikotik eratorritako barazkiak, sustraiak, erraboiak, tuberkuluak eta haziak.

b) Nekazaritza konbentzionaletik eratorri arren, sintesi bidezko produktu kimikoekin tratatu ez diren produktuak.

## **21. artikulua. Ureztatzeko baldintzak**

21.1 Debekatuta dago ur-hartuneak zabalik uztea, ureztatzeko ura alferrik galtzen uztea edo gehiegizko ur-kontsumoa eragiten duten ureztatze-metodoak erabiltzea.

21.2 Debekatuta dago, halaber, baratzeak ureztatzeko ura horretarako prestatu gabe eta baimendu gabe dagoen beste edozein tokitatik ekartzea.

21.3 Erabiltzaileek ureztagailuak erabiliko dituzte baratzeak ureztatzeko, eta instalazioetako urasketatik hartuko dute ura.

21.4 Ezin izango dute instalazioetan eskura ez dagoen beste elementurik erabili. Horrenbestez, debekatuta dago aspertsoreak edo aldameneko baratzeak busti ditzaketen bestelako bitartekoak erabiltzea.

## **22. artikulua. *Hondakinen tratamendua***

22.1 Erabiltzaileak arduratuko dira baratzeak garbi mantentzeaz, eta hondakin organikoak konpost-gunean utzi beharko dituzte horretarako.

22.2 Gainerako hondakinak behar bezala kudeatu beharko dira baratze-parkean horretarako prestatutako puntuan edo, halakorik ez izanez gero, hurbilen dagoen hiri-hondakinen bilketa-sistemako puntuan.

## **23. artikulua. *Mantentze-gastuak eta finantziazioa.***

23.1 Pertsona erabiltzaileek beren gain hartuko dituzte baratze-lanetatik eratorritako gastuak: ongarriak, landatutako landareak eta baratze-lanetarako beharrezko gainerako gastu guztiak.

23.2. Horrez gain, zerbitzuaren erabiltzaileek Udalak zerbitzuaren kontzeptuan ezarritako prezio publikoa ordaindu beharko dute urtero, baratzeen erabilerak sortzen dituen gastuei aurre egiten laguntzeko.

23.3. Udalak 50 €-ko fidantza eskatuko dio pertsona erabiltzaile bakoitzari, Udalaren jabari publikoko eremua modu egokian erabiltzen dela bermatzeko. Fidantza hori udal-baimena ematen den unean bertan eskatuko da.

## **24. artikulua. *Ingurumen Heziketa.***

24.1. Baratze publikoak zabalik egongo dira inguruko ikastetxeetako ikasleentzat, eta oro har, handik pasatzen diren pertsona guztientzat, horrela, baratzeetan garatutako lanak eta nekazaritza tradizional eta ekologikoaren balioak ezagutarazteko.

24.2. Erabiltzaileek nahitaez utzi beharko diete sartzan Udalak antolatutako bisitei, eskaintzen den zerbitzu publikoaren zati gisa, betiere baratze publikoetako parkeetako ingurumen-heziketa sustatzeko helburuarekin.

## V. TITULUA

### ERANTZUKIZUN-ARAUBIDEA

## **25. artikulua. *Pertsona erabiltzailearen erantzukizuna.***

Zerbitzuaren erabiltzaile bakoitzak bere baratzean gauzatutako ekintzen erantzukizuna izango du. Baimena eskatzeak Ordenantza honetan zehaztutako guztia onartzen dela esan nahi du, baita esleitu zaion baratzearen erabileratik eta aprobetxamendutik eratorritako erantzukizuna bere gain hartzen duela ere.

Horrenbestez, pertsona erabiltzaileak honako hauen gaineko erantzukizuna izango du:

1) Lantze-prozesua. Udalak ez du inolako erantzukizunik izango lantze-prozesuaren ondorio eta emaitzetan, ezta lurraren egoeran eta haren emankortasun-gaitasunean ere.

2) Laborantza-mota. Udalak ez du inolako erantzukizunik izango nekazaritza-tresnen erabilerari eta erabilera horrek pertsonen osasun edo osotasun fisikoan izan ditzakeen ondorioei dagokienez.

3) Erabiltzailearen produktuak eta lanabesak. Udalak ez du inolako erantzukizunik izango baratzeetan gerta daitezkeen ekintza bandaliko, lapurreta edo kalteei dagokienez, ezta produktuak eta biltegirotutako lanabesak izan ditzaketen gorabeherari dagokienez ere.

4) Animaliek baratzean edo landatutako produktuetan eragindako kalteak.

5) Baratzean bildutako produktuak. Landare eta barazki horiek norberaren edo hirugarrenen osasunean sor ditzaketan kalteak erabiltzailearen erantzukizuna izango dira.

25.2 Norberaren baratzean nahiz hirugarrenen baratzeetan edo lagatako instalazioetan kalte edo gorabeheraren bat ikusiz gero, pertsona erabiltzaileak haren berri eman beharko dio, berehala, Udalari.

## **26. artikulua. *Erantzukizuna hirugarrenen aurrean***

26.1. Pertsona erabiltzaileek baratze publikoen erabileran eta aprobetxamenduan hirugarrenei eragindako kalteekiko erantzukizuna izango dute, kaltetutakoak beste baratze publiko batzuen erabiltzaile izan ala ez.

26.2 Era berean, beste pertsoneri edo horien baratzeei eragindako kalteei edo lesioei erantzungo diete.

26.3 Erabiltzaileek dagokion kalte-ordaina ordaindu beharko diote kaltetutako pertsonari, eragindako kalte-galerengatik.

### **27. artikulua. *Lanabesak itzuli eta lehengoratu beharra.***

27.1 Eguneroko erabilera ez den beste arrazoiren baten eraginez instalazioak hondatuz gero, pertsona erabiltzaileek hondatutakoa konpondu edo berrezarri beharko dute.

27.2 Baratzea erabiltzeari uztean, pertsona erabiltzaileak tresnak eta lanabesak itzuli beharko ditu, utzi zirenean zuten antzeko baldintzetan.

27.3 Pertsona erabiltzailereren batek berrezarri eta konpontzeko betebeharrak hori betetzen ez badu, Udalak zuzenean egin ahal izango du haren kontura, dirua itzultzeko ahalmena erabiliz.

### **28. artikulua. *Udalari kalte-ordainak ordaintzea.***

#### *ZEHAPEN-ARAUBIDEA*

### **29. artikulua. *Arau orokorrak***

29.1 Zerbitzuaren erabiltzaileek Ordenantza honetan ezarritako guztia bete beharko dute, eta bertan aurreikusten ez denari dagokionez, aplikagarriak diren xedapen arau-emailek xedatzen dutena.

29.2 Ordenantza honetan ezarritakoaren aurkako jokabide guztiak arau-hauste gisa hartuko dira eta Udalaren isuna jasoko dute.

29.3 Zigorren zenbatekoaren graduazioa eta zehaztapena erabakitzeke orduan, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

a) Eragindako kaltearen zenbatekoa.

b) Arau-hausleak lortutako etekina.

c) Arau-haustea egiteko asmorik izan den ala ez.

d) Urtebeteko epean arau-hauste bat edo gehiago egin izana, behin betiko ebazpen bidez horiek arau-hauste gisa hartu direnean.

29.4 Pertsona erabiltzaileen erantzukizuna honelakoa izan daiteke:

- Nagusia edo zuzenekoa, arau-haustearen egileak pertsona horiek direnean.
- Subsidiarioa, arau-haustea instalazioen erabiltzailea ez den beste pertsona batek egin duenean pertsona titularraren onespenerekin edo zabarkeriagatik, instalazioetan baimenik ez zuten hirugarrenei sartzen uzteagatik.

### **30. artikulua. *Ikuskaritza***

30.1 Udalak izendatutako langileek lagatako baratzeak eta instalazioak ikuskatu ahal izango dituzte edozein momentutan.

30.2 Baratzeen erabiltzaileek instalazioetara sartzen utzi beharko diete uneoro ikuskatzaileei; gainera, eskatzen zaien informazio guztia eman beharko diete, baratze publikoen kudeaketa, erabilera eta aprobetxamenduaren jarraipena egin ahal izateko.

### **31. artikulua. *Arau-hausteak***

31.1. Arau-haustetzat hartuko da zerbitzuaren pertsona erabiltzaileek Ordenantza honek ezartzen duenaren aurka egin dezaketen jarduera edo izan dezaketen jokabide oro.

31.2 Arau-hausteak arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke, arau-haustea eragin duen jokabidearen intentsitate- edo erruduntasun-mailaren arabera, edo instalazioetan eragindako kaltearen arabera.

31.3. Zehazki, eta aurrekoari kalterik egin gabe, arau-hauste arin gisa hartuko dira honako hauek:

a) Baratzeetan animaliak sartzea.

b) Baratzeetan nekazaritza-makinak ez diren trakzio mekanikoko ibilgailuak sartzea.

c) Gainerako pertsonen eragozpenak eragitea.

d) Ordenantza honek ezarritako betebeharrak eta zereginen aurkako beste edozein jokabide, arau-hauste larritzat edo oso larritzat hartzen ez denean.

31.4. Arau-hauste larritzat hartuko dira honako jokabide hauek:

a) Baratzeen mantentze-lan egokiak ez egitea, horietan kalte-galerak eragin direnean.



- b) Baratzeetan Udalaren baimenik gabeko obrak edo aldaketak egitea.
- c) Baratzeetan Ordenantza honetan berariaz zehazten diren barazki-espezieak ez diren beste batzuk landatzea.
- d) Baratzearen erabilera eta aprobetxamendua Udalaren baimenik gabe hirugarren pertsoneri lagatzea.
- e) Lurraren azalean nahiz lurpean kalteak eragin ditzaketen landare- eta barazki-espezieak landatzea.
- f) Baratzeetan barbakoak, estalpeak edo debekatutako beste elementu batzuk ezartzea.
- g) Baratzeoko larreak edo laborantzako hondarrak erretzea edo edozein motatako sua sortzea.
- h) Udalak eta udal-teknikariek emandako jarraibideak ez betetzea edo horiei lursailean sartzea galaraztea.
- i) Urtebetean bi arau-hauste arin edo gehiago pilatzea.
- j) Beste titularren jarduera edo aprobetxamendua oztopatzea.

31.5. Arau-hauste oso larritzat hartuko dira honako jokabide hauek:

- a) Titular batek edo harekin dagoen beste edonork gauzatutako ekintzen eraginez beste pertsoneri lesioak eragitea.
- b) Lurzorua kutsatzea.
- c) Lursailaren erabilera edo landaketa hiru hilabetez alde batera uztea, hiru hilabeteak amaitu aurretik Udalari jakinarazitako salbuespenezko kasu arrazoituetan izan ezik.
- d) Baratzeen funtzionamendu arrunta oztopatzea edo eragozteak.
- e) Lagatzen diren instalazioak eta/edo lursaila bera modu larrian hondatzea.
- f) Ereitea, landatzea, biltzea edo edukitzea debekatuta dauden landare psikotropikoak edo bestelakoak ekoiztea.
- g) Baratze publikoetan lortutako produktuak merkaturatzea.

h) Baimena eskatzean, nortasuna, adina edo esleipenerako garrantzitsuak izan daitezkeen gainerako datuak faltsutzea.

31.6. Baimenaren titularrak huts-egite arin, larri edo oso larriren bat egiten badu baimena kendu ahal izango zaio, ezar dakioken zigorrari kalterik egin gabe, hurrengo artikuluan xedatutakoari jarraiki. Baimena kentzeak ez dio erabiltzaileari kalte-ordainak jasotzeko aukerarik emango.

31.7. Erabiltzaileraren baten jarrerak delitu- edo falta-izaera balu, gertakariak eskumena duen agintari judizialari jakinaraziko zaizkio, hark dagozkion erantzukizun penalak ezar ditzan. Hala eta guztiz ere, eta alde kalteua den aldetik, Udalak dagozkion akzio penalak, zibilak edo administratiboak abiarazi ahal izango ditu.

### **32. artikulua. Zehapenak.**

32.1. Dagozkion zehapenen zenbatekoa ezarri eta erabakitzeko, Ordenantza honetan jasotzen diren graduazio-irizpideak hartuko dira kontuan.

32.2. Arau-hauste arinek 20,00 eta 50,00 € arteko isuna izango dute.

32.3. Arau-hauste larriek 51,00 eta 150,000 € arteko isuna izango dute.

32.4. Arau-hauste oso larriek 151,00 eta 300,00 € arteko isuna izango dute.

32.5. Instalazioei kalteak eragin bazaizkie, erantzukizuna duen erabiltzaileak hasieran bezala utzi beharko ditu gauza guztiak, eragindako kaltea konponduz.

32.6. Baimena kentzeak ez du zigor-izaerarik izango, aurreko artikuluko seigarren atalean aurreikusten den moduan.

### **33. artikulua. Zehatzeko eskumena duen agintaritza.**

Alkateak/lehendakariak izango du dagozkion zigorrak ezartzeko eskumena.

Hala ere, alkateak beste edozein tokiko organori eskuordetu ahal izango dio eskumen hori, betiere Tokiko Araubidearen Oinarrien Legeari jarraiki.

### **34. artikulua. Prozedura zehatzailea.**

Arau-hausleei zigorrak jartzeko prozedura zigortzaile bat ireki eta bideratu beharko da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen IX. Tituluan aurreikusten den araubidearen arabera.